



Hiru urte eta gero, berriro ere zabalik

BELAUNTZA ▶ Herriko tabernaren inaugurazio ekitaldia egin zuten herenegun, herritar ugarirekin

ESKAINITZA ▶ Egun guztietan irekiko dute; asteburuetan aukera zabala izango da menuetan ▶ 6



Andres Zuñiga izango da tabernako sukaldaria. ANDER OTEZABAL

LEITZA ▶

Herri Artekoaren balorazio «oso ona» ▶ 7



Kozkortuetan amezketarrak garaile

AMEZKETA ▶ Euskal Herriko herrien arteko pilota txapelketako finalak izan ziren larunbatean, Amezketako pilotalekuan ▶ 3

hitza
Praktikak HITZAn
irailetik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa
lizentziatuetako Tolosaldeko eta
Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali, uztailearen 15a baino lehen, helbide hauetara:
• Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
• tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Beharpenak **-%40**

Amane

Emiobea 5 • Billabona • 943 69 68 11

KIROLAK ▶

Diru laguntzak eskatzeko aukera hilaren 27ra arte

Tolosako Udaletik herriko kirol elkarteei gogorarazi nahi diete diru laguntzen eskararak aurkezteko epea uztailaren 27an amaituko dela.

AISIA ▶

Gaur pelikula, eta bihar, Biarritzeko karts-etara

Tolosako Gazte Topaguneak uda hobetarako antolatutako duen Uda Gaztea egitarauaren baitan, gaur pelikula bat ikusteko aukera izango dute herriko gazteek topagunea bertan. *Little miss sunshine* izango da emango duten filma, 17:00etatik aurrera. Biharkoan, berriz, karts-etara irteera antolatuko dute. Hain zuzen ere, Biarritzera joango dira, eta herria bera ere eza-gutzeko aukera izango dute. 15:00etan abiatuko dira Triangulo plazako autobus geltokitik.

EUSKARA ▶

Udako EGako ikastaro trinkoan izen-ematea

Aitzol Udal Euskaltegian udako EGako ikastaro trinkoa antolatuko dute. Ikastaroa irailean izango da, goizez ala arratsaldean. Interesatuak etzi, ostirala, izango dute izena emateko azken eguna, 943 65 10 06 telefono zenbakian.

TOLOSA ▶ KULTURA

Tolosa azokengatik saritua

Erredakzioa ▶ Iragan astean Donostiako Bataplan diskotekan urtean zehar nabarmendu diren norbanako eta taldeen zatitza sari banaketara egin zuten. Hala, Tolosa bere ekimen turistikogastro-mikoen gaitik — Txuletaren Festa, Arrautzaren Festa, Babarruna, urteko azokak... — izan zen saritua. Tolosako hainbat sukaldari, Babarrun elkartearen lehendakaria, kofradiako kideak, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea izan ziren, besteak beste. HITZA

KIROLAK ▶

Oriako Txirrindulari Eskolakoak garaile, Ordiziako erlojupekoan

Ordiziatik Amezketarako 35 kilometroko ibilbidea egiteko 46 minutu eta 41 segundoko denbora behar izan zuten



Belca taldekoak, herenegun, sari banaketaren uean. HITZA

ERREDAKZIOA

Jubenilen talde arteko erlojupeko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten herenegun Ordizian, bertako Txirrindulari Elkartek antolatuta, J.R. Mariatzen VI. Oroimenezkoa, hain zuzen ere. Bertan, eskualdeko Oriako Txirrindulari Eskolakoak, Belca izenarekin, izan ziren aurtengo garaile marka on bat egin zutelarik.

Ordiziatik Amezketarako joan-etorrian, 35 kilometro arteko ibilbidean, 46 minutu 41 segundoko denbora egin zuten, batez beste 45 km/orduko abiadura emanez. Hala, bigarren geratu zen Bruesa taldeari minutu bat eta segundo bateko aldea atera zion Oriakok. Talde gazte hau Andoni Usandizaga, Patxi Rodrigo, Aitor Ocampos, Jon Gorostidi, Iker Gil, Aritz Pagola eta Ander Zubillaga txi-

rrindulariek osatzen dute. Taldeko zuzendaria, berriz, Aitor Aiertza da, eta laguntzaile teknikaria Juan Luis Gorostidi. Guztiak eskertu nahi dituzte taldekideek horrelako garaipena eskuratzeko.

Bestalde, eskualdeko gaztediari dei egiten dio Oriako Txirrindulari Eskolak, bertan izena eman dezaten parte hartzeko, «eskualdeak jarrai dezan halako garaipenak lortzen».

HEZKUNTZA ▶

Helduen Hezkuntzan matrikulatzeko aukera irailean

DBH graduatua, Lehen Hezkuntza edota hizkuntzak ikasi ahalako dira

ERREDAKZIOA

Tolosako eta Villabonako Helduen Hezkuntzan izen emateko epea irailean 3an irekiko dute. Tolosako Igaralde kaleko 23. zenbakian edota 943 67 26 60 telefono zenbakian egin ahalako da, edo bestela Villabonako Udaletxeko plazan edo 943 69 03 12 zenbakian.

DBH graduatua, unibertsitateko sarrera, Lehen Hezkuntza, etorkintzat euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko eta frantseseko eskolak eman ahalako dira, besteak beste.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



AMEZKETA ▶ PILOTA

Amezketarrak kozkortuen mailan txapeldunak izan dira

Euskal Herriko herrien arteko txapelketak jokatu zituzten, Arbizukoak hiru mailatan nagusituz, Arrasateren aurka



Kadeteen arteko norgehiagokan Arbizukoek (gorriz) irabazi zuten, partida borrokatuan. N. URBIZU



Frontoian, arratsaldeko finaletan bildutakoak. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Larunbatean Amezketan EHPKk (Euskal Herriko Pilota Konfederazioa) pilotako bi jaialdi antolatu zituen. Alde batetik, goizean Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Iparraldeko ia 40 ume (haur, ume eta kozkortu) mailatan topaketa edo txapelketa jokatu zuten. Hauen artean, Amezketako pilotariak izan ziren kozkortuen mailan txapeldunak.

Amezketako pilotalekuan jendea bildu zen partida guztiak ikusteko, bai goizean eta baita arratsaldean ere.

Arratsaldean Euskal Herriko herrien arteko finalak jokatu

TXAPELDUNAK ▶

TOPAKETETAN

Haurrak. Arrasatek 18 (Markel Moron-Joseba Garate); Baztanek 17 (Sergio Oskoz-mattin Asiain).

Umeak. Bizkaiak 18 (Gorka Ibarrondo-Iosu Beaskoetxea); Baztanek 12 (Iñaki Azpiroz-Dorio Trantxe).

Kozkortuak. Amezketak 18 (18 (Erik Jaka-Joseba Gailurralde); Bizkaiak 17 (Danel Elezkano-Sabin Guaresti).

HERRIEN ARTEKOETAN

Kadeteak. Arrasatek 20 (Ibai Bolinaga-Iker Agirregabiria); Arbizuk 22 (Iosu Barberena-Joseba Ezkurdia).

Gazteak. Arrasatek 1 (Asier Goitia-Iban Arana); Arbizuk 22 (Mattin Ezkurdia-Josu Bergara).

Nagusiak. Arrasatek 22 (Unai Xpe-Egoitz Urbarren); Arbizuk 20 (Arkaitz Arrutik-Iñaki Agirre).

zituzten. Bertan, Arrasatek (Gipuzkoako txapelduna) eta Arbizuk (Nafarroako Belate federazioak antolatutako txapelduna) jokatu zuten. Ondorengoak izan ziren emaitzak: Arbizuk irabazi zuen kadeteenean «lehia estu eta orekatu baten ondoren». Batez ere «lehenengo partida eta hirugarrena izan ziren estuak, bigarrenak ez baitzuen kolorerik izan». Beraz, nafarrek irabazi dute aurtien.

Eskerrak herriari

Eskerrak eman nahi izan dituzte EHPKkoek, Amezketako Zazpi Iturri elkarteari, Amezketako Udalarari eta «batez ere Egunez eraikuntzak enpresari bere laguntzagatik, beraien laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen Euskal Herriko finala Amezketan jokatzeari».

AMEZKETA ▶

Altuna anaiak Kider finalerdietan ariko dira

N. URBIZU

Altuna II-Iriarte bikotea erre-monteko Kider txapelketako finalerdietara pasa da sanferminetan, Huarthen Juaristi-Urrutiari irabazi ondoren (40-37). Altuna II.a «oso ondo» aritu zen.

Altuna anaiak Kider txapelketa indarrarekin hasi dira. Hilaren 6an Altuna I-Etxeberria III bikoteak lortu zuen finalerdietara pasatzea.

Altuna II-Iriartek etzi jokatuko dute Zeberio II-San Miguelen aurka. Altuna I-Etxeberria III.a, berriz, gaur ariko dira Ezkurra-Olazarrekina.

ALEGIA ▶

Txintxarri abesbatzen kontzertua karmenetan

ERREDAKZIOA

Alegiko Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzek jaietako kontzertua eskainiko dute. Azken ukituak eman ondoren dena prest dute Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak karmenetako kontzerturako. Ostiralean kontzertua eskainiko dute 19:45ean San Joan Bataiatzailearen elizan.

Bestalde, Txintxarrik kamisetak atera ditu, eta salgai izango dira plazan.

ALEGIA ▶

Jai alternatiboen bazkarirako txartelak salgai

Alegiko festa alternatiboetako egitarauaren baitan, ostiralerako herri bazkarirako txartelak daude salgai. Hauek 15 eurotan izango dira Ixkiñan eta Etxeberrian. 14:30ean izango da San Juan kalean. Txartelak lehenbailehen erostea eskatu dute Alegiko Gazte Asanbladakoek. Festa alternatiboetako hasiera ostegunean emango diete.

AMEZKETA ▶

Igaratzako meza igandean ospatuko dute

Igaratzako ermitan meza bana egiten ari dira hilabetero. Udan zehar ere izango dira, eta uztailari dagokionez, 15ean, igandean izango da. Abuztukoa, berriz, 12an izango da. Arantzazuko ermitan meza Lazkaoko beneditarrek ospatzen dute, eta txandaka egiten dute. Rufino Mujika priorea da Lazkaoko beneditarren abatea.



Rufino Mujika priorea Igaratzako ermitan meza ospatzen. HITZA

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2007ko uztailaren 5ean egindako zuzen aparteko bilkuran, hasierako onespenez zion honako proiektu honi:

"E.A.Z.5 "Euskal Herri Plaza" eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.5 artikulua eraberrita, proiektua, interesatuek beren interes aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HILABETE BAT iragarki honen azken argitaratzea egiten eta bihar munetik kontatzen hasita] jendaurrean jarrita egongo da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosaldeko Hitza, Berria eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea aztergai egongo da aipameneko epearen barruan. Tolosako Udalbeteko Hirigintzako Bulegoan (Plaza Zaharreko 6-B), Alegazioen idatzki Udalbeteko Sarrera Erregistroan aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2007ko uztailaren 5ean
ALKATEA

AIZTONDO ▶ KULTURA

Aiztondo argazkitan

28 parte-hartzaileen artetik Aitzol Etxegoien lasartearrak irabazi du IV. Aiztondo Argazki Rallya; sari nagusiaz gain beste zortzi banatu zituzten antolatzaileek

IMANOL GARCIA

IV. Aiztondo Argazki Rallya irabazi du Aitzol Etxegoien lasartearrak. Txema Fernandez zarautzarrak lortu zuen bigarren saria eta Idoia Lahidalga billabonatarrek hirugarrena. Horiez gain, akzesitak jaso zituzten, Patxi Badiola (Ondarroa) Pedro Mari Otáñoren bustoa gain; Iraitz Etxeberriak (Donostia) Pedro Mari Otáñoren baserria gain; Javier Quiros (Beasain) Larrualgo udaberria gain; Jose Luis Perezek (Beasain) Akitzako panoramikan eta Iyuya Urrutiak (Villabona) Adunako basoa gain. Ekaitz Pradosek (Zizurkil) lortu zuen Aiztondo sari berezia.

28 parte-hartzaile izan ziren. Aitzol Etxegoienek ez zuen espero irabaztea. «Argazki onak ateratu nahi, baina jende ugari zegoen argazkiak asko lantzeru. Aiztondo bailaran argazkiak ateratzea gustuko du: «Luzu bat da dioten paisaiak». Ekaitz Pradosek bigarren urtez jaso du saria. «Fukat subjektiboa bada sari banakotzerena. Saria jaso zuen argazkia Pedro Mari Otáñoren baserriarena izan zen. «Baserriaren leku polit bat zen eta hori atera nuen».



Lehen saria. Argazki honekin lortu zuen irabaztea Aitzol Etxegoienek argazki rallya.




Hirugarren saria. Idoia Lahidalgak argazki honekin lortu zuen saria.



Bigarren saria. Txema Fernandez zarautzarrak argazki honekin lortu zuen saria.



Bigarren saria. Txema Fernandez zarautzarrak argazki honekin lortu zuen saria.



Akzesitak. Goitik eta ezkerretik hasita, ondorengo egileen argazkiak: Ekaitz Prados (Aiztondo saria), Javier Quiros (udaberria), Iyuya Urrutia (basoa), Jose Luis Perez (panoramika), Patxi Badiola (bustoa), Iraitz Etxeberria (Pedro Mari Otáñoren baserria).

ZABALA DESGUAZEA

- Pibin Prebenerako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarerako kotxeak giltzen ditugu.

Tel. Fono: 943 67 17 90 • 606 593 347
Bendak Industrialeko, 16 • DELANITZA

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

Hiru urte eta gero herriko taberna eta jatetxea zabaldu dute

Urteko egun guztietan zabalik edukiko dute eta eskaintza berezi ugari eskainiko dituzte, eguneko menua barne



Herenegun inauguratu zuten herriko taberna-jatetxea hamaiketako baten bidez. ANDER OTEZABAL

ASIER IMAZ

Belauntzako jatetxe-taberna hiru urte itxirik egon ondoren orain dela bi aste zabaldu zuten. Inaugurazioa, berriz, asteburuan burutu zuten, herenegun, hain zuzen ere. Hamaiketako baten inguruan, herritar ugari elkartu ziren Belauntzako udalaxe ondoan dagoen jatetxe-tabernan.

Herrian dagoen taberna bakarra berriro zabaldu dute, baina apustu zehatz bat ere egin dute aukera hori hartu dutenean, hau da, jatetxe funtzionamenduari ere garrantzia eman nahi izan diote, horrela, «etapa berri honetan jatetxeari garrantzi handiagoa» emango zaiola jakinarazi dute, horretarako «urte luzeetako esperien-

tzia duen sukaldaria» jarri dute jatetxean, «honi esker eguneko menua zein jaki berezietan bere jakituria aportatzeko aukera dauka».

Ordutegi zabala

Andres Zuñiga sukaldariak, ordutegia eta eguneko menuak azpimarratu ditu, koadrilei eskainiko zaien prezio bereziaz gain. «Urteko egun guztietan egongo da zabalik, goizeko 09:00etatik gaueko 22:30ak bitarte jatetxea, tabernak berriz irekirik jarraituko du, bezeroa kontuan hartuaz. Inbertsio handi bat suposatu du, baina horrelako leku eder batean hiru urtetan taberna itxirik egotea triste da. Guk zerbitzu on bat ematea dugu helburu,

horregatik urte guztian zabalik egongo da, egun guztietan».

Jatetxean menu ezberdinak egongo dira, asteburuan aukera zabalagoa izango delarik. «Asteazken eguneko menua egongo da eta asteburuetan plater konbinatuak zerbitzatuko dira, horretaz gain menu bereziak ere izango dira. Afaltzeko aukera ere egongo da. Igandetan berriz, hamaiketako hartzeko aukera egongo da». Erreserbak egiteko aukera ere egongo da, nahi izanez gero gainera, plater bereziak alde aurretik eskatu ahal izango dira; «erreserba eginez gero haragi eta arrain plater bereziak enkargatzeko aukera egongo da. Horretarako, 943 670928 telefono zenbakira deitu beharko da».

IBARRA ▶ KIROLAK

3x3 modura futbol txapelketa abuztuan

Zabalik dago parte hartu nahi duten neska eta mutilentzat izena emateko epea



Emeterio Arrese parkean jokatuko dute futbol txapelketa. I. TERRADILLOS

A. IMAZ

II. San Bartolome futbol txapelketa antolatu dute abuztuaren 25ean Ibarako Emeterio Arrese parkean. 3x3 modalitatean jokatuko da, hau da, talde bakoitzak hiru jokalariz izango ditu zelai berezian, izan ere, delar artifizialezko zelai txikia jarriko dute.

Neska eta mutilen txapelketak jokatuko dituzte eta hauek hiru mailatan bereiztuko dira: 1993-1994. urtean jaiotakoak; 1995-1996. urtekoak eta gazteenak, 1997-1998. urtekoak

hain zuzen ere. Izena emateko epea zabalik dagoela jakin arazi dute antolatzaileek, horretarako Sendi Ekintza tabernara edo Zubiaurre tabernara joan beharko da. Abuztuaren 24ra arte izango da aukera, baina «parte-hartzea mugatua denez, ahalik eta azkarren komeni da izena ematea».

Antolatzaileek azaldu dutenez, denek jasoko dute saria. Babesleak ere aipatu behar direla diote; «10 inguru dira baina, karteletan agertu ez den Atari taberna ere aipatu nahiko genuke».

AMEZKETA ▶

Altuna anaiak joku onarekin Kider Torneoan

Erremonteko Kider Txapelketaren hasieran, Altuna anaiak oso emaitza onak lortzen ari dira. Altuna I.a 22 tanturekin partiduko onena izan zen eta Altuna II.ak ere garaipena lortu zuen.

BERASTEGI ▶

Podologo zerbitzua hilaren 28an, 09:00etan

Hilaren 28an podologo zerbitzua egongo da Berastegiko Gaztainondo Jubilatutako Elkartearen. Izena emateko bertara joan beharko da edota 943 683264 telefono zenbakira deitu beharko da.

eskertza ▶

Lorenza Etxabe Iruretagoiena

Andrea

Uztailaren 7an hil zen, 85 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golien bego—



Haren familiakoek asko eskertzen dizuegu hiletara etorri zinetenei, baita samin-agurra bidali zeniguten gutzietan ere.

Helbidea ▶ Santa Ana egoitza
Oharra ▶ Gorpua famili artean lurperatu da

ZARAUTZ, 2007ko uztailearen 10a

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Aurreratik balorazio «ikaragarri ona» egin dute irabazi ondoren

Pakito Sagastibeltza: «Federaziokoak ere harrituta gelditu ziren Herri Arteko Txapelketa izanda zegoen giroa ikusita»



Aurrera pilota eskolako pilotariak, Leitzako alkatea eta Aurrerako lehendakaria sari banaketaren ostean. HITZA

NAIARA GARZIA

Larunbatean Leitzak Herri Arteko Txapelketa irabazi ondoren, balorazio (ikaragarri ona) egin dute Aurrera pilota eskolatik.

Pakito Sagastibeltza Aurrerako arduraduna da eta txapelketa honen inguruan mintzatu da. «Hasteko, herri txiki batean lau talde erregular sortzea oso zaila da. Txapelketa hasi zenean iruditzen zitzaigun aurrera jokateko bidea izan genuela. Baina Burlataren aurka galtzean esperantzak neurri batean galduta irabazi genituen. Halere finalaurrekoetan sartzeko aukera izan genuen».

Herri Artekoa lau mailatan jokatzen denez, lau norgehiagoka jokatu zituzten larunbatean: hasi berriak, haur-kategoria, gazteak eta nagusiak, eta lauak espero bezala igaro ziren: lehenengo, 18-2 irabazi zuten leitzarrek, bigarrena 18-1. Hirugarrena, aldiz, Uhartek oso erraz irabazi zuen, 22-1eko emaitzarekin. «Partidak espero genuen bezalako emaitzak izan zituzten. Bagenekien hirugarren partidan huts egingo genuela eta lehenengo biak irabaziko genituela. Honela hastea beti hobe izaten da».

Lehenengo hiru partidak jokatu eta gero, 11 tanto besterik ez zituzten behar txapela esku-

ratzeko, eta Olazabalek eta Iriartek partida galdu zuten arren, 11. tantoa lortu zuten txapela jada Leitzarena zen. «Olazabal eta Iriarte bikain aritu ziren. 11. tantotik aurrera erlaxatu baziren ere, hori gutzia merezi zuten», dio Sagastibeltzak.

Giro «ezin hobea» Labriten

Herri Arteko Txapelketa moduko txapelketa izateko, ikaragarriko jendetza bildu zen larunbatean Labriten. «Federaziokoak ere harrituta gelditu ziren Herri Artekoa izanda zegoen giroa ikusita, urtetan ez omen zuten ikusi hainbeste jende Herri Artekoan», dio Sagastibeltzak. «Goiko zatia ez zuten ireki nahi, eta azkenean ireki egin behar izan zuten, dena beteta baitzegoen».

Bi autobus joan ziren Iruñera, baina, autoz ere herriko jen-

de asko joan zen. 7 zenbakiak zortea omen dakar eta Sagastibeltzak ere gauza bera esan du. «Larunbatean 2007ko uztailearen 7a zen eta Leitzaren zatit egun historikoa izan da».

Ospakizunak eta esker ona

Txapelketa amaitu ondoren 21:00etan abiatu ziren Leitzako aldera. 22:00etarako Mendigorri elkartera iritsi ziren, eta 85 lagun inguru bildu ziren afaltzera. «Sukaldari bezala Bernardo Iparra eta bere emaztea lanean aritu ziren arratsalde guztian eta lan ikaragarria egin zuten».

Nafarroakoa irabazi eta gero, orain Euskal Herriko Herri Artekoan parte hartuko dute Aurrerako pilotariak.

Amaitzeko, Aurrerako pilotariak, inguruan ibili direnei eta herritar guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA ▶ EMAITZAK

HASIBERRIAK

18-2. Mikel Sagastibeltza eta Anartz Olano Luis Sanchez eta Aritz Goñiren aurka.

HAUR-KATEGORIA

18-1. Ramon Aldaregia eta Jon Jaunarena Igor de la Fuente eta Ander Minaren aurka.

GAZTEAK

1-22. Oian Alduntzin eta Aitor Goikoetxea Imanol Garralda eta Mikel Beroizen aurka.

NAGUSIAK

22-17. Mikel Olazabal eta Mikel Iriarte Angel Errea eta Iosu Linzoinen aurka.

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxea San Fermin Txapelketan, aurrera

Bengoetxea VI.ak eta Otxandorenak Titin eta Zubietari irabazi zieten larunbatean



Oinatz Bengoetxea Tolosako Beotibarren, urtarrean. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Bengoetxea VI.ak eta Otxandorenak larunbatean 22-21eko emaitzarekin irabazi ondoren, San Fermin Txapelketako A taldeko liderrak dira. Lau pilotariak partida alai jokatu zuten Labriten, eta nafarrekin ozta-ozta irabazi zuten, lan asko egin ondoren. 21na zihoaztela, Otxandorenaren tantoak garaipena ekarri ziren. Bengoetxea VI.ak eta Otxandorenak asteazkenean txapelketa honen barruko hurrengo

norgehiagoka jokatu dute eta irabaziz gero, finalerako sailkatuko dira.

Oinatz Bengoetxeak San Fermin Txapelketako lehenengo kanporaketan 11 tanto egin zituen eta Iñaki Otxandorenak, 8. Azken honek, Belokiren ordez sartu zen arren, partida bikaina egin zuen. Titin eta Zubietari irabazi zuten, baina ez zuten irabazterik izan.

Norgehiagokak 69 minutuko iraupena izan zuen eta osotara emandako pilotakadak 546 izan ziren.

LEITZA ▶ PILOTA

Barriolari Lau t'erdiko txapelak ihes egin dio

Olaizola II.ari 8 tanto besterik ez zizkion kendu, eta goizutarrak erraz irabazi zuen

ERREDAKZIOA

Larunbatean Barriolak ez zuen Nafarroako Lau t'erdiko bigarren txapela eskuratzerik izan eta Olaizola II.ari 8 tanto besterik ez zizkion kendu.

Leitzaren egun handia izan zen larunbatean Labriten, Herri Artekoak gain, Bengoetxea VI.a eta Barriola ere aritzekoak baitziren. Bengoetxea VI.ak irabazi egin zuen, eta Leitzak Herri Arteko txapela ere eskuratu zuen, baina Barriolak ez zuen zorterik izan.

Hasiera hasieratik Olaizola II.a alde ederrarekin irabazten hasi zen. 15-1 irabazten ziho-

la, ordea, leitzarrek erreazio-natu egin zuen. Azkenean, Olaizolak txapela eraman zuen eta Barriola 8 tantorekin gelditu zen.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Iturri-goxo jatebaitzaren sukaldari laguntzailea behar dugu. Deitu 943 69 12 10. Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da, ebeko lanak egiteko eta bi ume zaintzeko, gozetan, Ibarren. 943 67 15 09.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. Hilaren 15ean 10:30ean VII. Santamaña Igoera izango da, 7 km korrika, Santamaña elkarteak eta Asteasuko Udalak antolatuta. Izen-ematea, ordubete lehenago plazan edo 943 696896 edo 943 693400an.

Ibarra. Alurr Dantza Taldeak jaietan, abuztuak 23, soka dantza egiteko entsegua antolatu du gaur, 20:30ean egoitza zaharrean. Herritar eta gazte guztiei gonbidatzen zaie, aurten Bizi Nahi jubilatutako elkartearen aurrean dantzatzeko dutelako **Leitza.** Arkupeak jubilatutako elkarteak hainbat irteera antolatu ditu hil honetan: 23an eta 24an Lourdesera, 26an Aralarra Aiton-amonen Eguna (bazkaria eta dantzaldia) eta 28tik abuztuaren 1era Pirinioetara. Izen-ematea, elkarteak.

Tolosa. *Little Miss Sun Shine* filma emango dute doan 17:00etan Kultur Etxean, Gazte Topaguneak antolatuta.

Tolosa. Laugar-Abodi(Nafarroa) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Holtzarteko zubia pasatuko dute. Zazpi ordu inguruko ibilaldia da. Irteera 06:00etan Gorosabeletik. Izen-ematea, elkarteak (Gudari 6. 943 65 27 89).

Villabona. Larrañe-Otsogorrigaina-Belagua (Zuberoa) irteera antolatu du Aizkardik iganderako. Izen-ematea, elkarteak edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti.*
21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Saharako umeak gaur eta bihar iritsiko dira eskualdera

TOLOSALDEA ▶ Urte guztia errefuxiatu kanpamentuetan igaro osten, gaur, bihar eta etzi helduko dira eskualdera Saharako umeak. Bi hilabete inguru igaroko dituzte, bertako familiek hartuko dituztelarik. Epe honetan, osasun azterketak egiteaz gain, hainbat ekintza egingo dituzte elkarrekin: irteerak Euskal Herriko txokoak

ezagutzeko, jolasak, Saharako Eguna antolatzen den herrietan parte hartu, ... Aurten, 13 dira denera eskualdera etorriko diren 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutilak. Euren etxeetan hartuko dituztenek ondoren Saharara antolatzen diren bidaietara joateko aukera izango dute, euren errealitatea gertutik ezagutzera. **HITZA**

AGURRAK ▶

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera.
Mila esker.**

▶ HITZaren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...